

PASAIA / Ipuin kontaketen zikloa hasiko dute gaur Antxon

Oihulari Clown taldeak 18:00etan emango du udazkeneko ipuin kontaketen lehenengo saioa

I. VIDAL

Pasaiako liburutegiek antolatzen dituzten udazkeneko ipuin kontaketen zikloa gaur hasiko da, Antxoko liburutegian (Kultur Etxean dago), 18:00etatik aurrera. Lehenengo emanaldia, Oihulari Clown taldearen eskutik etorriko da. Hurrei joateko deia egin diete.

Ipuin kontaketa zikloa Antxon hasiko bada ere, hurrengo asteetan zehar, beste hainbat saio egingo dituzte Pasaiako beste barrutietako liburutegietan.

Kontalariei dagokionez, eta aurreko urteetako ohiturari jarraituz, aurten ere, Pasaiako liburutegiek antolatu duten udazkeneko ipuin kontaketa ziklora Euskal Herriko toki ezberdinetako ipuin kontalariak etorriko dira, pasaitar gaztetxoenen artean literaturarako zaletasuna bultzatzeko ekimena da ipuin kontalariena.

4 eta 8 urte bitarteko haurrentzat

Oihulari Clown taldearen emankizuna oso egokia da 4 eta 8 urte bitarteko haurrentzat. 50 minutuko iraupena du sasoiko lehen ipuin kontaketa saioak.